

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezero berriak lortzeko, guk eskeiniko ditugun zenbait plan publikoak izango direnez bertan gure aplikazioaren berri emago dugu. Urtean bi ekitaldi egingo dira aplikazioaren erabiltzaileentzako, esaterako, bazkari bat.

Horrez gain, gure bezeroekin kontaktuan jartzeko telefonoa erabiliko dugu, hau da, beraien informazioa erregistratzean telefono zenbakia eskatuko diegu eta arazoren bat edo gertaera garrantzitsu bati buruz hitz egin behar izatekotan telefonoaren bidez jarriko gara harremanetan.

Erabiltzaile guztiek ez dituzte jarduera berberak egingo, bakoitzak gustuko dituen ekitaldietan parte hartuko du, horrela lortuko dugu bezeroak gurekin mantentzea. Horrez gain, normalean jarduera berdina egiten dutenen arteko harremana eta hizketaldia errazteko zenbait erraztasun eskainiko dizkiegu, adibidez, beraien artean hitz egiteko talde bat sortzea.

Aukeratutako ekintza berrien berri izateko notifikazioak erabiliko ditugu, horrela interesa pizten dizkieten ekitaldiei buruz informazioa jasoko dute, bai aplikazioan eta baita WhatsApp edo SMS bidez ere.